

ANTZUOLA / Zazpi gaztetxoren ipuinekin osatu da Patxiko Txerren Txikiren liburua

ANTZUOLA. DV. Patxiko Txerren Txiki ipuingintza sariketatik atera den liburua aurkeztu zuten egubakoitz arratsaldean, liburutegian. Laurogeita hamar neska-mutiko aritu dira aurten, sariaren hamargarren edizio honetan, eta horietako zazpiren lanekin osatu da liburua.

Maila bakoitzetik lan bat hartu dute bildumarako: 1. mailan, Josune Agirre Lunarena; 2. mailan, Alazne Rodriguez Garitanorena; 3.ean, Eider Aranzabal Lamarianorena; 4.ean, Aina Altube Lordarena; 5.ean, Alazne Irastortza Gabilondorena; eta 6.ean, Goiuri Azkarateaskasua Bakaikoa eta Bingen Alkorta Garitanorena.

Liburuaren azala, bestalde, Concetta Probanza marrazkigileak egin du. Dena den, ipuin guztien orijinalak koadernatu eta liburutegian gorde dituzte. Haiek ere edozeinek irakurri ahal izango ditu bertara joanez gero. Bestalde, sariaren antolatzaileek Antzuolako eskolaren inplikazioa eskertu nahi dute: Eskolaren laguntzarik gabe ez litzateke lortuko halako emaitzarik, adierazi zuten.